

GreenGroup

Slogan: ORLEGIA, GURE HIRIAREN KOLOREA

Ingurumena, natura, gizakiok daukagun altxorrik preziatuena da. Naturan ditugu gure sustraiak, eta naturatik jasotzen dugu bizirauteko behar dugun guztia. Nola ez, ba, zaindu hainbeste ematen digun ondarea? Naturak ematen diguna zaintzea da gure erronka. Zaborrak natura guztiz suntsitzeko ahalmena dauka, eta zakarraren kantitatea eta erabilpena ez kontrolatzeak ondorio larriak ekar ditzake. GreenGroup taldekook argi dugu arazo honi ezin zaiola bizkarra eman.

Gasteizko hiritarrak zaborraren inguruko arazoaz kontzientziaztea da ideia nagusia. Horretarako, hainbat gauza eskainiko ditugu: aplikazio bat, tailerrak, produktuak, hiritarrekin harremanetan egoteko sare sozialak...